

ERIOOTZA-DANTZAK


ERDI - AROAN

Gaurko gizonaren gogorapenak eta Erdi-Aro'ko arenak alkaragandik urrin dagoz, benetan.

Eta eriotzeari begira be urrintasun au agertzen jaku.

Erdi-Aro'ko gizonak errez alkar ilten eben, Jaungoiko-zaleak ba-ziran, baiña ez ainbeste giza-zaleak.

Ez dakit orregaitik izango dan, baiña eriotzearen irudi bildurgarriak eta nabarmenak egiten



ebezan, eta irudi bildurgarri ori begien aurrean euki bearrekoa zalako edo, eriotzearen irudi zan, giza-soiñeko azur-egitamuagaz egindako edo egiteko dantzaldiak gogoratzen ebezan.

Erdel-elertian ezagunak dira «eriotza-dantzak» deritxen koplak: Eriotzeak, gaur batari biar bes-teari, dantzarako deia egiten eutsen eta ori zan eriotzea.

Asmapen iguingarria ta bildurgarria, benetan.

Eta ez bakarrik Iberia-aldean, Europa guztian ebillan zabal idazte-tankera au, antza dagoanez Erdi-Aro'ko gizon erdi-basatientzat egokia.

* * *

MARGOLARIAK

Margolarien artera be sartu zan tankera au eta Auropa'n baten baiña geiagotan agertzen dira olako irudi izugarriak.

Ez, ostera, Iberia'n. Emen elertian ain ugaria dan tankera au, ez da agertzen margoetan.

Eta ona emen, oraintsu non agertzen jakun Euskalerrian olako iruditegi ederra. Jabier'en etxean ain zuzen. Margo gogoangarriak eta zarrak, ainbeste urtetan orman estalduta egon eta oraintsu agertu diranak.

Jabier'en etxe maitagarri aretako gelarik maitagarrienean, Jabier'en Jesus Kurutzeratua dagon eleizan bertan, alboetako ormetan.

Ba-leiteke Erdi-Aro'ko gogorapenak geroago atsegingarri ez ziralako, margazki orreik estaldu bear izatea aldi barriagoetan.


* * *

EGOKIAK?

Jabier'en aldiko eta bere tankerako sendi baten olako irudi margotuak zelan sartu zeitekezan? Egokiak ete ziran?

Sendiaren asmamenez ez ziran sortuko, nik uste, baiña munduan dana erasten da, dana sartzen jaku biotzera ta burura.

Jabier'en sendia, jatorriz eta jokabidez, oso euskalduna zan, baiña aldiko tankerearen bultza-



deak indar egiten dau eta Europa'ko aizeak ez ebiltzan Naparroa zarretik urrin...

Dana dala, irudi gogoangarriak or dagoz Jabier'en eleizako ormetan.

OLAZAR'tar Martin'ek